



Guretzak



ETS taldeak bere historiako diskorik ausartena argitaratu berri du. "Guretzak" eraldaketa prozesu baten emaitza da, "Aukera Berriak" izeneko azken lanarekin hasi zena. Pop-a nagusi den apustu mimatu bat da, musika estiloekiko dauden aurreiritzi oro alde batera utziz.

Kontzeptuari begira, diskoa pertsoneri, kaleari eta kultura herrikoari egindako omenaldia da. Eguneroko bizitzaren eta aldartearen arteko trantsizioaren adierazpen artistikoa (samurtasuna, alaitasuna, nostalgia, euforia...). "Guretzak", musika estilo ugari uztartzen dituen emozioz beteriko mendi errusiarra da. "Guretzak" lanaren musikak eta hitzak Iñigo Etxezarretarenak dira eta ekoizpena Genis Trani katalanak egiten du.

Musikatik haratago doa diskoa eta abesti bakoitza margolan kostunbrista batekin batera aurkezten da, proiektuari kalitate artistiko handiagoa emanez eta proposamen musikal berri hau, artelan bihurtuz.

GURETZAK

Diskoari hasiera eta proiektuari izena ematen dio. Soinu latinoak keinu flamenkoekin uztartuta, kantu honekin unibertso musikal berri bat irekitzen du taldeak. Abestian zehar, bi pertsonen arteko pasiozko harremana deskribatzen da, bizitzari eman ahal diogun balioa gogoratuz.

BARKAIDAZU

Maite ditugun pertsonetikiko batzuetan sentitzen dugun damuari buruz hitz egiten du eta nola momentu horietan gure ahuleziak azaleratzen diren. Melodia itsaskorrek eta nazioarteko pop taldeetan inspiratutako musika ekoizpena. Eñaut Elorrieta erreferentearen kolaborazioak abestia maila gorenera eramaten du.

GU GEU GARENA

ETSk musika abanikoa are gehiago zabaltzen du Dance estiloko kantu honen bidez eta elektronikaren munduan erabat barneratzen da. Melodia itsaskorrek, egungo oinarri musikalak eta soinu modernoak. Abestia SÚNERen (Josune Arakistain) eskutik dator eta gure zalantzak gainditzeko denok egiten dugun barne bidaiari buruz hitz egiten du.

EZ DUT GAUZA HANDIRIK BEHAR

Gure buruari oparitu beharko genizkiokeen lasaitasun uneak irudikatzen ditu. Musika lasaia, melodia alaiak eta reggae ekoizpena, elementu guztien artean koherentzia lortuz. Begiak ixteko, daukaguna baloratze eta hegan egiteko abestia.

ITZALIZAZU ARGIA

Regetoiaren gaineko aurreiritziak kentzeko eta mundua konkistatu duten erritmoez gozatzeko errebindikazio bat. Bizi dezagun gaua oztoporik gabe. Diskoaren abesti lotsagabeena da eta DUPLA talde arabarrak kolaboratzen du.

BERRIRO HAS GAITEZEN

Bigarren aukerei buruz hitz egiten du eta nola batzuetan galdutako zerbait berriro has daitekeen. Taldearen folk estiloko lehenengo proposamena da eta abesti osoan zehar soinu organikoak, pasarte epikoak eta presente dauden koruak nagusitzen dira.

ZAINDU NAZAZU

Gertuko pertsona baten suizidioari buruzko istorioa. ETSk gizartearen oraindik tabua den gai delikatuaz azaleratzen du ekoizpen minimalista duen pianozko balada honekin. Idoia artista arabarrak kolaboratzen du, taldearen abesti hunkigarri honi berotasuna eta emozioa emanez.

ABUELA MAITEA

Iñigoren amonarentzat, Isidrarentzat, egindako kantua da eta bizitza osoan zehar izan zuten harreman estuaz hitz egiten du. Gizartearen zati handi bat hunkitu du abestiak eta adineko pertsoneri zuzendutako ereserkia bihurtu da jada. Musikalki runba eta boleroaren artean dago, soinu oso organikoarekin.

ZUENGATIK TOPA

ETSk jarraitzaileei zuzenduta dago, beraiei esker taldekideek zer sentitzen duten aitortuz. Diskoaren abesti alaienetako bat da, mestizajetik ateratzen diren erritmoekin, eta azken diskoen eta honen arteko zubi musikal gisa balio du.

baga-biga – ets
(2022ko abenduaren 2a)

